



BAGERAREN BULETINA

2018 azaroa

Kaixo bagerakide,

Ikasturte berrian sarturik gabiltzan hilabete honetako buletinean, ohi bezala, eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu, eta besteak beste, “Euskaraldia, 11 egun euskaraz” ekimenari eta Mintzalagunen 25. urteurrenari eman nahi diogu garrantzia.

EUSKARALDIA

Hilabete honetan “Euskaraldia, 11 egun euskaraz” ariketa soziala praktikan jartzeko unea iritsi da, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, hain zuzen. Euskaraldia ekimenean herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzea dugu xede. Horretarako, ariketa sozial praktikoa eta kolektiboa egingo dugu izena eman duten *ahobizi* eta *belarriprest* guztiek. Oraindik ez duzula izena eman? Eta zeren zain zaude? ([Izena eman nahi dut](#)).

Ariketa honek ez-ohiko egoerak sortuko ditu, tarteka deserosoak ere izan daitezkeenak (elkarrizketa elebidunak, beti erdaraz ezagututako gertuko kidearekin euskaraz egitea, eta abar). Horregatik, azaroaren 23a baino lehen gure buruak prestatzea funtsezkoa izango da, gertatuko diren kasu horietan nola jokatu jakin dezagun aholku saioak antolatu ditugu. Bi saio mota egongo dira; saio arinak (1,5 ordu) eta saio sakonak (4 ordu).

Prestakuntza-aholku saioak egutegia:

Saio arinak (Bagera Elkartean):

*Ahobizi*entzat bi data aukeran: azaroaren 9an 18:00etatik 19:30era edo azaroaren 19an 19:00etatik 20:30era.

*Belarriprest*entzako bi data aukeran: azaroaren 12an 19:00etatik 20:30era edo azaroaren 16an 18:00etatik 19:30era.

Saio sakonak (San Telmo Museoa):

*Ahobizi*ak eta *belarriprest*ak elkarrekin.

Bi data aukeran: azaroaren 10ean 9:30etik 13:30era edo azaroaren 17an 9:30etik 13:30era.

Izen ematea: donostia@euskaraldia.eus / 943005074 telefono zenbakian.

Mintzalagunak 25 urte

25 urte beteko ditu ikasturte honetan Mintzalaguna egitasmoak. 1993ko abenduan abiatu zen ekimena 12 lagunekin eta 25 urte ondoren, 400 mintzalagun aritzen dira urtean zehar asteroko mintza saioetan mingaina astintzen Donostiako kaleetan zehar.

Eta hori ospatzeko, **azaroaren 23an 19:00etan**, Euskaraldia ekimenari hasiera emango dion ekitaldian, leku berezia eskainiko diogu Mintzalaguna egitasmoari. Ekitaldi berezi honen ondoren, luntxa izango da, beraz, mintzalagun guztiak eta ekimena posible egiten duzuen bagerakideak bertara gonbidatuta zaudete.

Mintzodromoa

Nazioarteko Euskararen egunean antolatzen dugun Mintzodromoa ere **azaroaren 23an** antolatuko dugu Bulebarrean egongo den karpan. Ohiko bi Mintzodromo izango dira **09:30ean** eta **10:30ean** eta **12:00etan** beste Mintzodromo berezi bat izango da *ahobizi* eta *belarriprest*ek parte hartu ahal izango dute. Parte hartu nahi izanez gero azaroaren 20a baino lehen 943005074 telefono zenbakira deitu edo mintzalaguna@bagera.eus helbidera idatzi zein txandetan parte hartuko duzun azalduz.

Mintzalaguneari parte hartzeko deialdia

Mintzalaguna egitasmorako mintzapraktika egin nahi duten bidelariantzat bidelagunak behar ditugu. Euskara hobetu nahi duten bidelarien kopurua urtetik urtera handitzen doa eta zailtasunak ditugu bidelagunak lortzen. Horregatik, astean ordu betez bi-hiru pertsonekin elkartu eta euskaraz aritzeko agendan tartetxo bat egitea proposatu nahi dizugu. Urteetako esperientziak erakutsi du askok egunerokotasunean euskaraz bizitzeko saltoa eman dutela, bidelagun izan dituzten mintzalagunei esker. Hona hemen zintzilik ditugun taldeen orduategiak:

Edozein egunetan 18:00etatik aurrera

Astelehena: arratsaldean.

Asteazkena: 11:00etan bi talde (bata Antiguán), 18:00etan, 20:00etan.

Osteguna: 20:00etan.

Osteguna: 12:00etan eta arratsaldetan.

Ostirala: 09:15etan eta 18:30etan (Antiguán).

*Astelehena (talde espezifikoa): 17:30etatik 19:00etara Intxaurrondo Berriko emakumeen taldean aritzeko.

Hala ere, proposatutako ordutegiez gain beste edozein egunetan eta ordutan ahal izanez gero gurekin harremanetan jarri: 943005074 / 688820195 / mintzalaguna@bagera.eus

Auzoko egitasmoa

Bagera Elkartek [AUZOKO programa](#) sustatzen du besteak beste hirira iritsi berrien artean, hizkuntza gaitasunak lantzen joateko. "Euskara, Aniztasuna eta Herritarrak" gako nagusi bezala harturik, elkarrena ezagutu eta aitortuz, jatorri ezberdinetako herritarren artean, guztien arteko komunikazio eta kohesiorako hizkuntza euskara izatea da erronka nagusia.

Taldeak euskaraz dakitenekin (*Auzotarrak*) eta ez dakitenekin (*Auzokideak*) osatzen ditugu eta bi profilak beharrezkoak dira egitasmoa aurrera eraman ahal izateko. Horregatik animatzen zaituztegu *Auzotar* moduan egitasmoan parte hartzera. Programa bi auzotan jarriko ditugu martxan azarotik aurrera:

Asteartero, 17:00etatik 18:00etara, Amara Berriko auzo elkartearen (Martzelino Soroa plaza, 4) eta **asteazkeneo, 14:45etatik 16:00etara**, Egiako Musika Eskolan (Atotxako Zelaia plaza, 3) elkartuko gara.

Eman diezaiogun euskara elkarri eta izena eman auzokobagera@gmail.com helbidean edo 943005074 telefono zenbakian.

Errigora. 5 urte euskarari puzka!

5 urte joan dira Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina lehenengoz egin zutenetik. Ideia sinplea zen: Nafarroa hegoaldeko baratzaren uztarekin saskiak osatu eta jasotako diruaren %25 zonalde zigortu honetan euskara hauspotzeko erabili. 2013an 8.000 saski baino gehiago eskatu ziren eta azken bi urteetan 14.000 banatzera iritsi gara.

Aurten ere Bagera Elkartean saskia eskatzeko aukera izango duzu azaroaren 14a arte (saski bakoitza 50€tan). [Gehiago irakurri](#)



Agenda

Elkarrizketa Filosofikoak

Azaroaren 5ean, 19:00etan, izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa ohi bezala Urrats euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12). Gaia: euskalduntasun etnokulturaletik euskalduntasun nazionalera. Oinarrizko euskarria Joxe Manuel Odriozolaren Nora qoaz euskalduntasun honekin? (Elkar) liburua izango da.

Azaroak 5, 19:00etatik 20:30era, [Elkarrizketa Filosofikoak](#) Urrats Euskaltegian.

Azaroak 9, 18:00etatik 19:30era, [ahobizientzako formakuntza saioa](#) Bagera Elkartean.

Azaroak 10, 09:30etik 13:30era, [ahobizi eta belarriprestentzako formakuntza saioa](#) San Telmo Museon.

Azaroak 12, 19:00etatik 20:30era, [belarriprestentzako formakuntza saioa](#) Bagera Elkartean.

Azaroak 16, 18:00etatik 19:30era, [belarriprestentzako formakuntza saioa](#) Bagera Elkartean.

Azaroak 17, 09:30etik 13:30era, [ahobizi eta belarriprestentzako formakuntza saioa](#) San Telmo Museon.

Azaroak 17, 12:00etan, [Kantu Jira](#). Hasiera Fermin Calbeton kalean.

Azaroak 19, 19:00etatik 20:30era, [ahobizientzako formakuntza saioa](#) Bagera Elkartean.

Azaroak 23, 09:30etatik 13:00etara, [Mintzodromoa](#) Bulebarreko Euskaraldiko karpan.

Azaroak 23, 13:00etatik 18:00etara, [grafitia](#), [bideo proiektzioa](#), [Mintzalagunen txokoa](#), [kale animazioa](#) Euskaraldiko karpan.

Azaroak 23, 19:00etan, [Euskaraldiari hasiera eman eta Mintzalagunen 25. urteurren ospakizuna](#) Euskaraldiko karpan.

Abenduak 3, 19:00etan, "Azken aurreko manifestua, Harkaitz Cano"-ren errezitaldia lekua zehazteke (Euskaraldiaren amaiera).